

Bizkaiko Foru Aldundiaren 42/2010 FORU DEKRETUA, martxoaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2010. urtean, ikerketa arkeologikoak eta paleontologikoak sustatzeko diru-laguntzak nola eman arautzen duena.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) 102.2 artikuluan ezarri du foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta indusketetarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan ezarriko da, hain zuzen ere, zein laguntza emango diren, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Arau-esparru horren barruan, foru dekretu honek arautzen du nola eman Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010. urtean egiten diren ikerketa arkeologikoak eta paleontologikoak sustatzeko diru-laguntzak; horretarako irizpide nagusiak publikitatea, lehia eta objektibotasuna izango dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuak ezarri zuen Bizkaian jardura arkeologikoak egiteko arautegia, eta osatu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010. urtean egiten diren ikerketa arkeologikoak eta paleontologikoak sustatzeko diru-laguntzak nola eman arautzen duen dekretu honen esparru juridikoa.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39 k) eta 64.3 artikuluek xedatutakoa eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 22ko 132/2006 Foru Dekretuak xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan emandako ahalmenak erabiliz, Kulturako foru diputatuak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATZEN DA:

1. artikulua.—*Xedea*

Foru dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan 2010. urtean zehar egiten diren ikerketa arkeologikoak eta paleontologikoak sustatzeko diru-laguntzak nola eman arautzea; foru dekretu honen 2.2 artikuluan ezarritakoak izan ezik.

Foru dekretu honetan aipatzen diren diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera. Arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du.

2. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak*

1. Foru dekretu honen arabera, honako jardura hauek jaso dezakete diru-laguntza:

- Arkeologia eta paleontologiako prospekzioak.
- Kontrol arkeologikoa.
- Arkeologia eta paleontologiako zundaketak.
- Arkeologia eta paleontologiako indusketak.
- Arkeologia eta paleontologiako ikerketak.

2. Foru dekretu honen arabera, honako hauek ez daude diru-laguntza jaso dezaketen jardueren artean:

- Bizkaiko Lurralde Historikoa gairiditzen duten jarduerak.
- Kalifikatutako eta inbentariatutako alde edo ondasun arkeologikoak ukitzen dituzten obren ondorioz edo ustez hondar arkeologikoak egon daitezkeen aldeak, orubeak edo erakinak ukitzen dituzten obren ondorioz egin beharreko jardura guztiak.
- Ustekabeko aurkikuntzen ondorioz egin beharreko esku-hartze arkeologikoak.
- Bizkaiko Foru Aldundia edo beste herri-administrazio batzuk egiten ari diren jarduerak.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 42/2010, de 23 de marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones para la promoción de investigaciones arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia a lo largo del año 2010.

La Ley vasca 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 2 de agosto de 1990), en su artículo 102.2 establece que las Diputaciones Forales aprobarán anualmente los programas de ayuda para la conservación, mejora, restauración y excavación de bienes culturales calificados y de los inventariados, en los que se establecerán las ayudas a conceder, así como los criterios y condiciones para su adjudicación.

Dentro de este marco normativo el presente decreto foral regula la concesión de subvenciones para la promoción de investigaciones arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia, que se realicen a lo largo del año 2010, sobre la base de los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

En el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, el decreto foral número 62/1998, de 12 de mayo, establece la normativa para la ejecución de actividades arqueológicas en Bizkaia, completando el marco jurídico del presente decreto regulador de la concesión de subvenciones para la promoción de investigaciones arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia, que se realicen a lo largo del año 2010.

Por ello, en virtud de lo expuesto, y vistos los artículos 17, 39k y 64.3 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de Febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 132/06, de 26 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en reunión de 23 de marzo de 2010,

SE DISPONE:

Artículo 1.—*Objeto*

Constituye el objeto del presente Decreto Foral la regulación de la concesión de subvenciones para la promoción de investigaciones arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia, que se realicen a lo largo del año 2010, salvo las que se señalan en el artículo 2.2 de este Decreto Foral.

Las subvenciones a que se refiere este decreto foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Artículo 2.—*Actividades subvencionables*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral son las siguientes:

- Prospección arqueológica /paleontológica.
- Control arqueológico.
- Sondeos arqueológicos/ paleontológicos.
- Excavación arqueológica/ paleontológica.
- Estudios arqueológicos/ paleontológicos

2. No tendrán la consideración de actividad subvencionable con arreglo a este Decreto Foral las siguientes:

- Las actividades que superen el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Las actividades que se hagan necesarias como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos calificados y a los inventariados, o que afecten a zonas, solares o edificaciones en que se presuma la existencia de restos arqueológicos.
- Las actuaciones arqueológicas que resulten necesarias como consecuencia de hallazgos casuales.
- Aquellas actividades que estén siendo realizadas por la Diputación Foral u otras Administraciones Públicas

3. Diru-laguntza bakar-bakarrik emango zaio 2010. urtean zehar benetan egiten den jarduerari.

3. artikulua.—*Onuradunak*

1. Honako hauek izan daitezke deialdi honen onuradun:

a) Merkataritzako konpainiak (SA, SL, kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilaren 1669 artikuluan jasota daudenak izan ezik) eta EJZren dagozkien epigrafeetan alta emanda dauden enpresaburu edo profesional izaera duten pertsona fisikoak (1-936 «Ikerkuntza zientifikoa eta teknikoa» eta 2-776 «Zientzia Politiko eta Sozietateko doktore eta lizentziadunak, psikologoak, antropologoak, historiagileak eta antzekoak», hurrenez hurren), baldin eta 2010eko ekitaldian foru dekretu honetako 2.1 artikuluan jasotako jardueretarik edozein burutzen badute.

b) Enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoak.

2. Diru-laguntza eskatzen duena, salbuespenez, proiektuaren zuzendaria edo ikerlari nagusia ez bada, proiektuarekin duen lotura egiaztatu beharko du.

3. Eskatzaileak merkataritzako konpainiak, kooperatiba-sozietateak edo sozietate zibilak badira, zuzendari zientifikoa bat izendatu beharko dute diru-laguntza eskatzen duen ikerketarako, eta beraz izango da eskatzailearen ordezkaria administrazio honen aurrean.

4. Edonola ere, eskatzaileek beti frogatu behar dute jarduera egiteko behar diren baimenak eta lizentziak badituztela edo lortzeko bidean daudela, bai eta diru-laguntzen arloko foru arautegiak oro har ezarritako baldintzak betetzen dituztela ere.

5. Eskatzailea ez bada jarduera egin nahi den orube edo lekua-
ren jabea, frogatu beharko du jabeak bertan esku hartzeko baimena eman diola, eta, horretarako, Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabil dezake. Eskatzaileak baimena baduela esateko, idatziz egindako erantzukizunpeko adierazpena onartuko da.

6. Eskatzaileak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, baldin eta aurretik ere esku-hartze arkeologikoetarako baimenen onuradun izan badira, baina bete gabe badituzte baimen horiek eragiten dituzten betebeharrak (txostenak, memoriak eta materialak ematea).

7. Ezin dira onuradunak izan maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonak (IV. eranskina).

4 artikulua.—*Eskabideak eta agiriak*

1. Diru-laguntzetarako eskaerak foru dekretu honen I. eranskin gisa ageri den inprimaki ofizialean aurkeztu behar dira, gainerako eranskinekin —behar bezala bete eta mekanografiatuta— eta jarraian zehazten diren agiriekin batera; izan ere, agiri horiek egiaztatzen dute diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen direla.

2. Profesionalek aurkeztu behar dituzten agiriak:

a) EJZren 2-776 epigrafean («Zientzia Politiko eta Sozietateko doktore eta lizentziadunak, psikologoak, antropologoak, historiagileak eta antzekoak») alta emanda daudela egiaztatzen duen frogagiria.

b) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

c) Interesdunak legezko nahiz borondatezko ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkapena egiaztatu beharko da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilita.

3. Enpresek/enpresaburuek aurkeztu beharreko agiriak:

a) EJZren 1-936 epigrafean («Ikerkuntza zientifikoa eta teknikoa») alta emanda daudela egiaztatzen duen frogagiria. Era-kundearen IFKren kopia.

b) Erakundearen eraketa-eskrituren eta estatutuen kopia, eta dagokion erregistro publikoko inskripzioa. Administrazioak dagoeneko baditu agiri horiek, eta horietan aldaketarik ez bada izan, zein ekitalditan aurkeztu ziren adierazi behar da.

3. La subvención vendrá referida exclusivamente a la actividad que se realice a lo largo del año 2010.

Artículo 3.—*Personas beneficiarias*

1. Podrán ser personas beneficiarias de la presente convocatoria:

a) Las compañías mercantiles (S.A.; S.R.L.), sociedades cooperativas, sociedades civiles (excepto las del artículo 1669 del Código Civil) y las personas físicas que tengan la condición de empresarios o profesionales dados de alta en los correspondiente epígrafe del I.A.E. (1-936 «Investigación científica y técnica» y 2-776 «doctores y licenciados en Ciencias Políticas y Sociales, Psicólogos, antropólogos, Historiadores y similares», respectivamente) que realicen en el ejercicio 2010 cualquiera de las actividades recogidas en el artículo 2.1, del presente Decreto Foral.

b) Personas físicas que no tengan la condición de empresarios o profesionales.

2. En los supuestos excepcionales en los que el solicitante de la subvención no sea el director o investigador principal del proyecto, deberá acreditar su vinculación al mismo.

3. En el caso de que los solicitantes sean compañías mercantiles, sociedades cooperativas o sociedades civiles, éstas deberán nombrar un director científico de la investigación para la que se solicita la subvención, quien será el representante ante esta administración.

4. En todas las ocasiones, se deberá acreditar haber obtenido o estar en trámite de obtención de las autorizaciones, licencias y permisos que dicha actividad requiera y el cumplimiento de los requisitos que con carácter general establece la normativa foral en materia de subvenciones.

5. En el caso de que el solicitante no ostente la condición de propietario del solar o espacio sobre el que pretende desarrollar la intervención, deberá acreditar por cualquiera de los medios de prueba admitidos en Derecho, la previa autorización del titular para llevar a cabo la intervención, admitiéndose la declaración responsable por escrito del solicitante de que se posee dicha autorización.

6. Quedarán excluidos de esta convocatoria aquellos solicitantes que, habiendo sido beneficiarios de autorizaciones para intervenciones arqueológicas, no estén al corriente de las obligaciones derivadas de dichas autorizaciones (entrega de informes, memorias y materiales)

7. No podrán ser beneficiarias aquellas personas en las cuales concurren alguna de las circunstancias descritas en los apartados 2 y 3 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo (anexo IV).

Artículo 4.—*Solicitudes y documentación*

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I del presente decreto foral, junto con los restantes anexos debidamente cumplimentados y mecanografiados y la documentación que a continuación se señala y que es acreditativa del cumplimiento de los requisitos necesarios para ser beneficiario de la subvención.

2. Documentación relativa a profesionales:

a) Justificante de estar dado de alta en el I.A.E. en el siguiente epígrafe: 2-776, «doctores y licenciados en Ciencias Políticas y Sociales, psicólogos, antropólogos, historiadores y similares».

b) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del profesional que firma la solicitud.

c) Cuando el interesado actúe por medio de representante, legal o voluntario, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en Derecho.

3. Documentación relativa a las empresas/empresarios:

a) Justificante de estar dado de alta en el I.A.E. en el siguiente epígrafe: 1-936, «Investigación científica y técnica». Copia del C.I.F. de la entidad.

b) Copia de las escrituras de constitución y estatutos de la entidad e inscripción en el Registro Público correspondiente. En el supuesto de que dicha documentación obre ya en poder de la Administración y no haya sufrido modificación alguna, indicación del ejercicio en que fue presentada.

c) Erakunde eskatzaileak proiektuaren zuzendaria edo ikertzaile nagusia izendatzea.

d) Erakundearen ordezkari legez eskabidea sinatzen duenaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta ordezkaritza-ahalordea.

4. Pertsona fisikoek aurkeztu beharreko agiriak:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

b) Interesdunak legezko nahiz borondatezko ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkapena egiaztatutako beharko da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilita.

5. Jarduerari dagozkion agiriak:

a) Eskatzaileak esku-hartzea egin ahal izateko behar diren eskuespenak, lizentziak eta baimenak lortu dituela edo lortzeko bidean dagoela egiaztatutako agiria, baita lursailen jabearena ere. Edonola ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak («EHAA», 157. zk., 1990eko abuztuaren 6koa) aipatzen dituen baimenak egiaztatutako beharko dira.

b) Diru-laguntzaren xede den jarduerari buruzko txostena eta hura burutzeko egutegia. Horrekin batera, beren-beregi adierazi behar dira jarduera aurrera eramateko proiektu globalaren faseak.

c) Jardueraren sarrera-gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua, foru dekretu honen II. eranskineko ereduaren arabera. Hala ere, txosten bat egin behar da, aurrekontuaren honako alderdi hauek argi zehazten dituenak: 1) 2010eko ekitaldian garatuko den proiektu-fasearen kostua; 2) diru-laguntzaren xede diren kontzeptuen kostu zehatza; 3) kopuru hori ehunekatotan zenbat den 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren barruan, eta 4) hurrengo urteetan egingo direla-eta, foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzen xede ez diren proiektu-faseen gutxi gorabeherako kostua.

6. Kasu guztietan:

a) Esku-hartzearen zuzendariaren edo ikertzaile nagusiaren curriculum vitae, diru-laguntza eskatzen duena bera ez bada ere. Horretarako, III. eranskina bete behar da, eta, eredu horren arabera, behar beste orri erabiliko dira.

b) Proiektuaren zuzendariak edo eskatzaileak aurretik egin dituen esku-hartzeetan lortutako material arkeologikoak Arkeologi Museoan gordailuan uzteko akten kopia, bai esku-hartzea egingo den aztarnategian lortutakoei dagokiena, bai zuzendari edo eskatzailea titularrak dela Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako gainerako guztia.

c) IV. eranskina, behar bezala beteta.

d) Xede bererako beste diru-laguntza eskabide batzuen zerrenda, edo, bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, halaxe jakinarazten duen adierazpena. Zehazki adierazi behar dira beste edozein erakunde publiko zein pribaturik xede bererako eskatutako diru-laguntzak, bai eta eskaera horiek zein egoeratan dauden (ukatua, erantzunaren zain, emana) eta zenbatekoa den ere (V. eranskina).

e) Foru dekretu honen 6. artikuluan zehaztutako balorazio-irizpideak justifikatzeko gainerako agiriak.

f) VI. eranskina: ondo betetako hartzekodunen fitxa.

5. artikulua.—Eskabideak eta epeak

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahalgo dira (Bilboko María Díaz de Haro kaleko 11. zenbakian, asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4. artikulua zehazten duen moduan (lege hori urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatu zuen).

2. Eskabide bakoitzak ikerketa arkeologikorako proiektu bakarra jaso behar du.

3. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa (1) izango da, foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

4. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat falta badute, orduan, interesdunari eskatutako zaio, hamar (10) egun balioduneko epea-

c) Nombramiento por parte de la entidad de un director de proyecto o investigador principal.

d) Copia del Documento Nacional de Identidad de quien firme la solicitud en representación de la entidad y acreditación del poder de representación.

4. Documentación relativa a personas físicas:

a) Copia del Documento Nacional de Identidad.

b) Cuando el interesado actúe por medio de representante, legal o voluntario, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en Derecho.

5. Documentación relativa a la actividad:

a) Acreditación de haber obtenido o estar en trámite de obtención de las autorizaciones, licencias y permisos necesarios para llevar a cabo la intervención, incluso el del propietario de los terrenos. En todo caso será necesario acreditar las autorizaciones a que se refiere la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco («Boletín Oficial del País Vasco» número 157, de 2 de agosto de 1990).

b) Memoria detallada de la actividad para la que se solicita subvención, así como su calendario. Junto a ello se deberán consignar de forma expresa las distintas fases del proyecto global en el que se enmarca dicha actuación.

c) Presupuesto desglosado y detallado de ingresos y gastos de la actividad, según el modelo establecido en el anexo II de este decreto foral, junto a un informe en el que se detalle el presupuesto, especificando de forma clara: 1) el costo de la fase del proyecto a desarrollar durante el ejercicio de 2010; 2) el costo preciso de los conceptos para los que se solicita subvención; 3) el porcentaje que dicha cantidad supone en relación al presupuesto del ejercicio de 2010, y 4) la estimación del costo global de otras fases del proyecto que no son objeto de subvención por este decreto foral por estar prevista su realización en años sucesivos.

6. En todos los casos:

a) Curriculum vitae del director de la intervención o investigador principal, aún en los supuestos en que éste no sea el solicitante de la subvención, rellenando el Anexo III e incluyendo cuantas hojas se estimen necesario según dicho modelo.

b) Copia de las actas de depósito en el Arkeologi Museoa de los materiales arqueológicos procedentes de intervenciones anteriores realizadas por el director del proyecto o el solicitante, tanto en el yacimiento donde se proyecta intervenir, como en otros del territorio de Bizkaia del que haya sido titular.

c) Anexo IV debidamente cumplimentado.

d) Relación de otras solicitudes de subvención para el mismo objeto o, en el caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, declaración indicando este extremo. Habrá de detallarse toda subvención instada a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, detallándose el estado de la misma (denegada, pendiente de contestación, concedida) y su importe (Anexo V).

e) Demás documentación que justifique los criterios de valoración señalados en el artículo 6 de este Decreto Foral.

f) Anexo VI, Ficha de acreedores debidamente cumplimentado.

Artículo 5.—Solicitudes y plazos

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia (calle María Díaz de Haro, número 11, Bilbao-Bizkaia, de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero.

2. Cada solicitud contendrá un único proyecto de investigación arqueológica.

3. El plazo de presentación será de un (1) mes a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación de este Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

4. Si las solicitudes no se formalizaran correctamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez (10)

ren barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

5. Beharrezkotzat jotzen denean, aurkeztutako eskaerak ebazteko egoki irizitako agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkie Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskatzaileei. Errekerimendua egin zaion eskatzaileak agiriok ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta eskaera hori artxibatu egingo da, horretarako ebazpena eman ondoren.

6. Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, jakitera ematen da eskatzaileen datu guztiak fitxategi batean sartuko direla, dirulaguntzarako deialdi hau kudeatzeko eta deialdiarekin zerikusia duen beste edozein administrazio-espeditante kudeatzeko. Bizkaiko Foru Aldundia da fitxategi horren arduraduna, eta haren aurrean erabili ahal izango dira datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak, jendearentzako bulegoetara joanda eta, bertan, NANA aurkeztuta.

6. artikulua.—Balorazio-irizpideak

1. Diru-laguntzen eskaeren ebazpen-proposamena egiteko, epaimahai kalifikatzaileak jarraian adierazten diren irizpideak eta horien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 10 puntu izango dira, eta honela banatuko dira:

a) *Proiektuari dagokionez:*

- Helburua bada ikerketa zabaltzea arkeologiaren ikuspuntutik gutxitan landu izan diren aldi historikoetara.
 - Puntu 1: diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten proiektuak badira, gutxi landutako historia aroak ikertzen badituzte eta ez badute Foru Aldundiaren diru-laguntzarik edo finantzaketarik jasotzen.
 - 0,5 puntu: proiektu berritzaileak badira, azken bi urteetan diru-laguntza jaso dutenak eta aurretik diruz lagundutako beste proiektu batzuei gainjartzen ez zaizkienak.
 - 0 puntu: Foru Aldundiaren diru-laguntza lau urte baino gehiago jasotzen daramaten proiektuak badira, edo amaitu gabe dauden beste batzuei gainjartzen zaizkienak.
- Hasita dagoen proiektu baten jarraipena bada, baldin eta jarraipena dela egiaztatzen bada. Puntuazio osotik puntu 1 emango da gehienez.
 - Puntu 1: orain dela lau urte baino gutxiago hasitako proiektuak badira, urteko txostenen eta materialen inbentarioen bidez egiaztatzen direnak.
 - 0,5 puntu: orain dela lau urte baino lehenago hasitako proiektuak badira, eta hori guztia egiaztatzen bada maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuaren 11.5 artikulua zehazten duenaren arabera indusketako lau kanpainarik behin Kultura Ondarearen Zerbitzuan aurkeztu behar diren urteko txostenen, materialen inbentarioen eta txosten zientifikoen bidez.
 - 0 puntu: proiektu berriak edo orain dela lau urte baino lehenago hasitakoak badira, baldin eta horien urteko txostenak bakarrik aurkeztu badira, baina falta bada materialak gordailuan uztea eta maiatzaren 62/1998 Foru Dekretuko 11.5 artikulua ezartzen duen txosten zientifikoa aurkeztea.
- 2010eko esku-hartzea barne hartzen duen ikerketaren planingintza egokia aurkeztea, ondo definitutako fase argi eta zehatzekin. Puntuazio osotik puntu 1 emango da gehienez.
 - Puntu 1: osorik planifikatutako proiektuak badira, 4 urteko behar erako helburuak eta lan-faseak zehaztuta dituztenak.
 - 0,5 puntu: planifikatutako proiektuak badira, 4 urtetik 8 urtera bitarteko iraupena dutenak.
 - 0 puntu: helburuak, faseak eta egutegia gutxi zehaztuta dituzten proiektuak badira, edo 8 urtetik gorako epe baterako planifikatutakoak.

días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

5. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir a los peticionarios cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el peticionario requerido no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

6. Con el objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, se informa de que los datos de los solicitantes serán incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro expediente administrativo relacionado con la misma. El responsable de este fichero es la Diputación Foral de Bizkaia, ante la cual se podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiéndose para ellos a las oficinas de atención al público donde deberá presentar su D.N.I.

Artículo 6.—Criterios de valoración

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvención, el Tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que sobre un máximo de 10 puntos, quedan establecidos como sigue:

a) *En relación al proyecto:*

- Tener como objetivo abrir la investigación a períodos históricos poco trabajados desde el punto de vista arqueológico.
 - 1 punto: Proyectos para los que se solicita por vez primera subvención y centran la investigación en períodos históricos poco trabajados y que no están siendo objeto de subvención o financiación por parte de la Diputación Foral.
 - 0,5 puntos: Proyectos novedosos que han sido objeto de subvención en los dos últimos años y no se superponen a otros subvencionados con anterioridad.
 - 0 puntos: Proyectos que llevan más de cuatro años siendo subvencionados por la Diputación Foral o que se superpongan a otros que no han concluido.
- Tratarse de la continuación de un proyecto ya iniciado siempre que haya quedado acreditado. Se valorará hasta 1 punto del total de la puntuación a conceder.
 - 1 punto: Proyectos iniciados hace menos de cuatro años y que resultan acreditados a través de los informes anuales e inventarios de materiales.
 - 0,5 puntos: Proyectos iniciados hace más de cuatro años y que resultan acreditados a través de los informes anuales, de los inventarios de materiales y de las Memorias Científicas que cada cuatro campañas de excavación deben presentarse en el servicio de Patrimonio Cultural según establece el artículo 11.5 del Decreto Foral 62/1998 de 12 de mayo.
 - 0 puntos: Proyectos nuevos o iniciados hace más de cuatro años de los que sólo se hayan entregado los informes anuales, estando pendiente el depósito de materiales o la Memoria Científica según establece el artículo 11.5 del Decreto Foral 62/1998 de 12 de mayo.
- Presentar una correcta planificación de la investigación en la que se enmarca la intervención de 2010 en fases bien definidas, claras y concretas. Se valorará hasta 1 punto del total de la puntuación a conceder.
 - 1 punto: Proyectos planificados en su integridad fijando objetivos y fases de trabajo en un período de tiempo inferior a 4 años.
 - 0,5 puntos: Proyectos planificados cuya duración sea superior a 4 años e inferior a 8.
 - 0 puntos: Proyectos poco definidos en objetivos, fases y calendario o cuya planificación sea superior a 8 años.

b) *Jardungo duen taldeari dagokionez:*

- Proiektuaren zuzendari zientifikoaren kaudimen teknikoak. Hori baloratzeko, diru-laguntza eskatzen den proiektu zein aldi historikoari lotuta egindako argitalpenak eta zuzendutako indusketa-lanak zenbatuko dira (4 puntu gehienez).
- Lan arkeologikoen zuzendaritza-lanei, gehienez, 1,5 puntu emango zaizkie, hain zuten, esku-hartze arkeologiko bakoitzeko 0,1 puntu emango dira.
- Diru-laguntzaren xede den gaiari buruzko aldizkari eta liburu-tako artikuluei, gehienez, 1,5 puntu emango zaizkie, hain zuzen ere, 20 orrialdeko 0,1 puntu emango zaizkie.
- Biltzarretara edo jardunaldietara joateagatik, baldin eta bertan komunikazio bat aurkeztu bada, edo gaiari lotutako ikastaroak emateagatik, gehienez, puntu 1 emango da: komunikazio bakoitzeko, 0,1, eta bost ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, berriz, 0,2.
- Taldearen kaudimen teknikoak eta antolaketakoa. Atal honetan kontuan hartuko da taldeak espezialista egokiak izatea egingo den esku-hartzerako, baita erakunde zientifiko baten babesa izatea ere (puntu 1, gehienez).
- Puntu 1: erakunde zientifiko baten (unibertsitatea edo ikerketa-zentroa) babesa eta aztarnategiaren arazoei aurre egiteko diziplina anitzeko talde bat izanez gero.
- 0,5 puntu: bietako bat bakarrik izanez gero: edo talde egoia edo erakunde zientifiko baten babesa.
- 0 puntu: ez badago ez talde egokirik, ez erakunde zientifiko baten babesik.

c) *Finantzabideei dagokionez:*

- Aurrekontuak proiektuari dagokionez duen koherentzia. Honako hau baloratuko da: aurrekontuak kontuan hartu behar du foru dekretu honen babesean eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektuaren fasea, bai eta haren fase guztien aurrekontu-balioespena ere. Puntuazio osotik puntu 1 emango da gehienez.
- Puntu 1: proiektuari egokitutako aurrekontuak badira, bai 2010. urteko kanpainari dagokionez, bai proiektu osoan aurrez ikusitako helburuak lortzeko dagokionez.
- 0,5 puntu: aurrekontuak zehatzak badira 2010. urteko kanpainari dagokionez, baina zehaztu gabeak, aldiz, proiektu osoari dagokionez.
- 0 puntu: aurrekontua txarto azalduta duten proiektuak badira, eta gehiegikeria edo gabeziagatik esku-hartzea burutzeko aurrekontu desegokiak dituztenak.
- Finantzabide osagarriak egotea: puntuazio osotik puntu 1 emango da gehienez.
- 2. Epaimahai kalifikatzailearen iritziz gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ez dira onartuko.
- 3. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak 2010. urterako duen aurrekontuaren arabera, BEZa kenduta. Aurrekontua foru dekretu honen II. eranskinean ezarritako eredian aurkeztu behar da, eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu. Aurrekontuan egin beharreko arazketa burututa, eta aintzat hartuta ez dela diru-laguntzarik ez emango ekipo-ondasunak erosteko —baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada jarduerak egiteko dekretu honetan zehaztutako epea baino—, ez eta, oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluan berariaz jasota dauden ondasunak erosteko ere; bada, orduan, diru-laguntza emango zaie balorazio handiena lortu duten proiektuei.
- 4. Edozelan ere, foru dekretu honetan araututako diru-laguntzek horretarako ezarritako aurrekontu-zuzkidurak izango dituzte mugatutak; ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak eskatzen zaizkien baldintza eta beharrezkoak betetzea, horrez gain, beharrezkoa izango da dauden aurrekontu-zuzkidurekin eskaerei erantzun ahal izatea.

b) *En relación al equipo de actuación:*

- Solvencia técnica del director científico del proyecto. Se valorará cuantificando publicaciones y direcciones de excavación relacionadas con el proyecto y período histórico para el que se solicita la subvención (máximo de 4 puntos).
- Se valorará hasta un máximo de 1,5 puntos la dirección de trabajos arqueológicos, otorgando 0,1 puntos por cada campaña de intervenciones arqueológicas.
- Se valorará hasta un máximo de 1,5 puntos los artículos en revistas y libros relacionados con la materia objeto de la subvención, otorgando 0,1 puntos por cada 20 páginas.
- Se valorará hasta un máximo de 1 punto la asistencia con comunicación a congresos o jornadas, así como la impartición de cursos relacionados con la materia, otorgando 0,1 puntos por cada comunicación y 0,2 por cada curso superior a cinco horas.
- Solvencia técnica y organizativa del equipo. En este apartado se tendrá en consideración que el equipo cuente con los especialistas adecuados al tipo de intervención proyectada, así como que cuente con el respaldo de una institución científica (máximo 1 punto):
- 1 punto: Si cuenta con el respaldo científico de una institución científica (Universidad o Centro de Investigación) y con un equipo multidisciplinar necesario para afrontar la problemática del yacimiento.
- 0,5: Si cuenta sólo con equipo adecuado o sólo con el respaldo de una Institución Científica.
- 0: Si carece tanto del equipo adecuado, como del respaldo de una Institución Científica.

c) *En relación a las fuentes de financiación:*

- Coherencia del presupuesto en relación con el proyecto. Se evaluará que el presupuesto tenga en consideración tanto la fase del proyecto para la que se solicita subvención al amparo de este Decreto Foral, como la estimación presupuestaria de las diferentes fases del mismo. Se valorará hasta 1 punto de la puntuación total a conceder.
- 1 punto: presupuestos adecuados al proyecto tanto en lo que respecta a la campaña del 2010 como a la consecución final de los objetivos previstos en el proyecto global.
- 0,5 puntos: Presupuestos concisos en lo que respecta a la campaña de 2010, pero ambiguos en lo referente al proyecto global en que se integra.
- 0 puntos: Proyectos con presupuestos mal explicados y detallados o inadecuados para realizar la intervención por exceso o defecto.
- Existencia de fuentes de financiación complementarias: Se valorará hasta 1 punto de la puntuación total a conceder.
- 2. Las propuestas que no superen una puntuación mínima de 5 puntos, a juicio del Tribunal Calificador, no serán atendidas.
- 3. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto del proyecto presentado para el 2010, I.V.A. excluido, que se presentará en el modelo establecido en el anexo II de este Decreto Foral, detallando la cuantía de la subvención solicitada. Efectuadas las correspondientes depuraciones del presupuesto y considerando que no tendrán la consideración de gastos subvencionables la adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al período de ejecución de las actividades previstas en el presente Decreto, y, en general, los que resultan expresamente excluidos en el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, se procederá a otorgar la subvención solicitada a los proyectos que hayan quedado en mejor posición.
- 4. En todo caso, las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, tendrán como límite las correspondientes dotaciones presupuestarias establecidas al efecto, y en consecuencia no bastará con que el/la solicitante reúnan las condiciones y requisitos exigidos, sino que se precisará, además, que su solicitud pueda ser atendida teniendo en cuenta las respectivas dotaciones presupuestarias.

5. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du inoiz gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

7. artikulua.—*Aholkularitza*

Kulturako Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak beharrezko laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko du, foru dekretu honen interpretazioari eta haren xede diren proiektuei buruz sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko.

8. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea*

1. Epaimahai kalifikatzaile bat sortuko da, aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituena. Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatuak izendatuko du epaimahai hori, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko den foru agindu baten bidez, eta honako kide hauek izango ditu:

- a) Epaimahaiburua titularra:
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.
- b) Epaimahaikide titullarrak:
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko arkeologiako teknikari biak.
 - Arkeologian kualifikazioa duen teknikari bat.
- Ordezko epaimahaikideak:
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua.
 - Arkeologian kualifikazioa duten hiru teknikari.
- c) Idazkari titularra:
- Kulturako Zuzendaritza Nagusiarik atxikitako administrazio orokorreko teknikari bat.
- Ordezko idazkaria:
- Kulturako Zuzendaritza Nagusiarik atxikitako teknikari bat.

2. Epaimahai kalifikatzaileak diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

9. artikulua.—*Ebazpena*

1. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek egunean dituztela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Horiek egiaztatu ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietakoren bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2. Eskaerak Kulturako foru diputatuak ebatziko ditu, organo instrukzio-egileak —epaimahai kalifikatzaileak hartu eta dagokion aktan biltzen diren erabakien arabera— egindako ebazpen-proposamena ikusita, hiru (3) hilabeteko epearen barruan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Epe horretan eskaerari buruzko berariazko ebazpenik eman ezean, diru-laguntza ukatuzat joko da; hala ere, baliteke horren gainean geroago berariaz ebaztea.

3. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie diru-laguntzen deialdi honetan eskabidea aurkeztu duten guztiei. Bertan, berariaz azaldu behar da foru agindu horrek administrazio-bidea amaitzen duela eta horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru diputatuari, foru agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik hilabeteko (1) epearen barruan, edo, bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela EAEko Auzitegi Nagusian, era berean zenbatutako BI (2) hilabeteko epearen barruan. Gainera, foru agindu hori «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da, gehienez ere ebazpena eman eta hilabetera (1).

5. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Artículo 7.—*Asesoramiento*

El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Cultura prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta planteada referida tanto a la interpretación del presente Decreto como a los proyectos que constituyen su objeto.

Artículo 8.—*Tribunal calificador*

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un Tribunal calificador designado por la diputada de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante Orden Foral que será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y que estará integrado por los siguientes miembros:

- a) Presidente titular:
- El Director General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Presidente suplente:
- La Directora General de Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.
- b) Vocales titulares:
- El Jefe del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.
 - Los dos técnicos de arqueología del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.
 - Un/a técnico/a cualificado en arqueología.
- Vocales suplentes:
- El jefe del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.
 - Tres técnicos/as cualificados/as en arqueología.
- c) Secretario/a titular:
- Un/a técnico/a de Administración General adscrito a la Dirección General de Cultura.
- Secretario/a suplente:
- Un/a técnico/a adscrito/a a la Dirección General de Cultura.

